Arte Eszenikoen Teknikarien Elkartearen Aldizkaria

14
11 - 12
/ 05

# Atae Karia

Revista de la Asociación de Técnicos de las Artes Escénicas



## Teknikariak: Gure lanbidea aurrera doa, ATAE ere bai

## Técnicos: La profesión crece, ATAE también

*Eta gainera:*

Kale-ikuskizunetarako fitxa tekniko estandarra
Ongi etorria ATECati
Zuzendaritza teknikoari buruzko jardunaldiak Vitoria-Gasteizen
Teknikarientzako ikastaro berria Getxoko E.T.-n

*Y además:*

Ficha técnica estándar para espectáculos de calle
Bienvenida a ATECat
Jornadas sobre dirección técnica en Vitoria-Gasteiz
Nuevo curso para técnicos en la E.T. de Getxo



# ALICIA SUAREZ

## *CARACTERIZACIÓN*

*PARA CAMBIAR TU IMAGEN*

- *MAQUILLAJE ESPECIALIZADO*
- *TODO TIPO DE PELUCAS:*
  *Venta, alquiler, peinado según diseño*
- *TODO TIPO DE POSTICERÍA:*
  *Estándar y confección según diseño*
- *ASESORAMIENTO PROFESIONAL:*
  *Interpretamos "tu idea"*

*C/ Amistad nº 6 - Bilbao*
*Tel.94.4232208 - Fax 94.4242506*
*e-mail: aliciasua@euskalnet.net*





**180 elkartekide baino gehiago gara dagoeneko**
**Ya somos más de 180 socios**



Gogoratu gure bulegoa Bilbao Eszenaren lokaletan dagoela:

Juan de Gardeazabal kalea, 3
48004 Bilbo
944014248
615731729

Erredakzioa, banaketa eta publizitatea- Redacción, distribución y publicidad:
**ATAE Asociación de Técnicos de las Artes Escénicas**

Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari honetan idazten duten laguntzaileen eritzien ardurarik
La Asociación no se hace responsable de las opiniones vertidas por sus colaboradores en esta revista

Dohako banaketa
Distribución gratuita

Bulegoa/Oficina:
Juan de Gardeazabal, 3. 48004-BILBAO
Helbide postala/Dirección Postal: 1194 postakutxa. 48080-BILBAO
Tel: 944.014.248   615.731.729
E-maila: info@atae.org
Web orria: www.atae.org
Jendaurreko ordutegia/Horario de atención al público:
Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10,00etatik 14,00ak arte
10,00-14,00 horas, Lunes, Miércoles y Viernes.

# Bidai luze bat

# Un largo viaje

Trenak iada atzean utzi du udaldiko geltokia, udazkeneko haize freskuaren atzetik, eta lan egun luze haiek ez dira gogorregiak orain. Batzuek amaitu dituzte udako bira gogorrak edo jai egunetako kontzertu erraldoiak, eta besteak negu berriko antzoki eta kultur etxeetako hurrengo ihardunaldiak hasiak dira prestatzen.

Guk horri ekiten diogu egitasmoak behin eta berriro bultzatuz, opor ostekoak ere, eguzkiaren beropean, krema dizdiragarri eta kresala tartean heldu egin direnak, eta badirudi makinak aurrerantza jotzen duela erritmo onean, zarata eta argiz hornituta, baita argi-itzalen eta txalotarteko traketreoaren laguntzaz. Baina bapatean itzelezko daunbada datorkigu, kolpeko geldialdia, ezusteko geltokian gaude. Geure tren honetatik jaitsi behar berri mingarria jasotzeko: norbait bidean geratu egin da, betirako. José Ramón González “Txerra”, laguna eta lankidea, ez da gurekin berriro izango. Amaitu ezinezko gau ilun batean joan egin zitzaigun, kilometroak aurrera egin ezinezko gau batean, bideetako lerro tartekatuak eta atseden guneetako loaldiez amesten dugun horietako gau batean. Liluraz asetutako tokitik-tokirako bidai hauetan uzten gaitu, lagun handikoak eta ahaztu ezinezko ipuinez jositakoak bait dira geure elkarkidetasun egun eta gauak. Bidai honetarako txartela erostean, ez digu inork inoiz esan abiadura handiko tren arriskutsuan izango garela, baina bigarren klaserako txartela izango dela gurea; ez dugula ez jantokirik,

El tren ha dejado la estación del estío, dirigiéndose al aire más fresco del otoño, y esos largos días de trabajo parecen más llevaderos. Unos han terminado las duras giras veraniegas o esos multitudinarios conciertos de las fiestas patronales y otros están pensando en el comienzo de la temporada invernal en teatros y casas de cultura.

Nosotros seguimos adelante con nuestros proyectos retomados después de las vacaciones, o madurados entre sol, bronceador y agua salada, y parece que la maquina se mueve a buen ritmo con sus sonidos, sus luces, sus sombras y ese traquetear de los aplausos. De repente sentimos un gran estruendo, un frenazo en seco, nos detenemos en una estación no prevista. Tenemos que bajarnos del tren para recibir una mala noticia: hay alguien que se ha quedado por el camino. Nuestro amigo y compañero José Ramón González “Txerra” ya no viaja con nosotros. Se marchó en una de esas noches interminables de cuentakilómetros que no avanzan, líneas discontinuas y sueños con camas en áreas de servicio. Nos deja en este apasionante viaje de lugares maravillosos, grandes personas y cuentos inolvidables en el que al comprar el billete nadie nos advierte de que viajaremos en un tren de alta velocidad, aunque con asiento de segunda clase, sin coche cama, sin restaurante y sin paradas programadas y, por si fuera poco, además del viajero somos el maquinista, el revisor, el mecánico y Dios sabe cuántas cosas más. Pero el viaje nos gusta y nos engancha de tal manera que sólo parece que exista esa vía que siempre continúa detrás de cada curva.

No existe solución, dicen algunos. Esto ha sido así siempre, hay que tirar para adelante. Rebelémonos



ez oherik, ez aisialdirako geldiunerik izango; eta hau dena gutxi balitz, ez digu inork inoiz argitu izan bidaiariak izateaz gain, makinariarena, ikuskatzailearena, mekanikariarena eta batek daki zer gehiago ere egin beharko dugula. Baina gustokoa dugu bidai hau, bidaiarekin zeharo lotuta gaude, eta errebueltaren osteko bide zuzena baino ez dugu ikusten…

Batzuek diote ez dagoela beste erremediorik. Hau horrela izan dela beti, aurrera egin behar dela, eta abarrekoak. Esames hauen aurrean planta egin behar gara, errebelatu egin behar gara. Eseri gaitezen gure aulkietan, lehiatila zabaldu eta sakonetik arnasa hartu, hauspoaren antzera irentsi haize freskoa, geurea dugun airea, eskubide dugun airea. Eta erregutu dezagun aurrerantzean ez dadila inoiz beste inor bidean geratu behar, betirako geratu, dagokigun airearen jabe ez izateagatik. Altxa gaitezen gure eskubidea diren atseden momentu horiek errespetatzen ez dutenen aurrean; borroka dezagun ezinbestekoak ditugun loaldirako edo bazkarirako etenen alde; errebelatu behar gara aurrekontuetan hoteletarako gastuak, dietak edo gidarienak sartzen ez dituztenen kontra, gero gure lepora “teknikariak txapeldunak ditugu” dioten morroi haiek.

Errebela gaitezen ba behingoz, eta beharrezkoa ikusten dugun une horretan denon artean zapalduko dugu larrialditarako frenoa, trena gelditu eta ezetza oihukatu. Ez. Hautatu dugun ogibide hau izan dadila bene-benetan ditugun beharrak eta nahiak betetzeko bidea, pertsonak garen aldetik ditugun helburu eta ilusioak, eta ezin dugu onartu geure biziekin edo lankideen biziekin ordaindu beharra.

Geure gogoan betirako izango zaitugu “Txerra” laguna, segi zeure bidean, eta zauden lekutik lagun gaitzazu gure trena hurrengo geltokira eramaten.

contra estas frases, sentémonos en nuestro asiento un momento, abramos la ventanilla y respiremos profundamente aire fresco, aire que nos corresponde y al que tenemos derecho y roguemos por que no tengamos que perder a nadie más porque no disponga de ese aire. Rebelémonos contra aquéllos que no incluyen los tiempos de descanso, de sueño o para comer tranquilamente en las hojas de ruta; contra los que en los presupuestos no hacen constar el dinero de hoteles, dietas o conductores y luego dicen, “los técnicos son unos campeones”.



Rebelémonos pues y, cuando creamos que tenemos que hacerlo, tiremos del freno de emergencia, para parar el tren y decir no. No. Porque esta profesión que hemos elegido tiene que ser, al fin y al cabo, un trabajo cuya contraprestación nos permita alcanzar nuestros objetivos e ilusiones como persona y no podemos permitir que esa contraprestación sea nuestra propia vida.

En nuestro recuerdo estarás siempre, amigo Txerra, prosigue tu viaje y vela desde ahí arriba por que nuestro tren llegue a la próxima estación.

Arte Eszenikoen I. Jardunaldiak
I Jornadas de Artes Escénicas

# ZUZENDARITZA TEKNIKOA
# LA DIRECCIÓN TÉCNICA

Vitoria-Gasteizeko XXX. Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren programazioaren barruan ospatuko dira Arte Eszenikoen inguruko I. Jardunaldiak, bertan "Zuzendaritza Teknikoa" analisi eta eztabaidarako gaia izango delarik.

Jardunaldiak azaroaren 14an eta 15ean ospatuko dira, hiriburu arabarrean dagoen Europa Biltzar Jauregian, eta 90 lagunentzako aforo mugatua izango da bertan.

Jardunaldiak ondoko publikoari zuzenduta daude: antzoki, konpainia eta zerbitzu-enpresen arduradun teknikoak eta zuzendari teknikoak, eta baita ikuskizunen ekoizpen teknikoaren arduradunak ere eta, era berean, ekoizpenaren beste arloetan lanean ari diren pertsonak, arte eszenikoen esparruan erabaki teknikoak hartzen dituztenak, ikuskizunen sormen eta ustiapenean aritzen direnak eta, azkenik, arte eszenikoen alorrean lanean dabiltzan teknikariak.

Azaroaren 14ko goizeko saioan Dominique Guerder-ek (arte eszeniko eta ikuskizunen zuzendaria, Frantzia) eta Javier Gorostiola-k (Bilbaoko Arriaga Antzokiko Zuzendaritza Teknikoaren ondokoa eta ATAEren elkartekidea) "Zuzendaritza teknikoa: eskakizun profesionala" izeneko txostena aurkeztuko dute. Ondoren, gai honi buruzko mahaingurua izango da.

Arratsaldeko saioan, Jason Barnes-ek (zuzendari teknikoa eta ekoizpen-zuzendaria Londreseko Royal Nacional Theatren) eta Joan Doménech-ek (Kataluniako Antzoki Nazionalaren zuzendari teknikoa) "Zuzendaritza teknikoaren konpetentziak" izango dute mintzagai, gero, berriz ere, mahaingurua izango delarik.

Azaroaren 15ean, jardunaldien bigarren eguneko goizeko saioan, Javier Gorostiola, Joan Doménech, Dominique Guerder eta Jason Barnes mintzatuko dira "Zuzendaritza teknikoa eta dagokion lan-ingurua. Bakarkako lana" izeneko gaiaz. Horren ostean, mahaingurua izango da.

Arratsaldeko saioan "Ikuskizunen industriaren esparruko zuzendaritza teknikoa Espainian gaur" izango da ospatuko den mintzaldi irekian landuko den gaia.

ATAEren elkartekideek 60 €ko matrikula-tarifa murriztua izango dute. Prezio horren barne daude jardunaldietarako sarrerak, bisita kulturalak eta azaroaren 14 eta 15eko bazkariak.

**El XXX Festival Internacional de Teatro de Vitoria-Gasteiz incluye, dentro de su programación, la celebración de las I Jornadas en torno a las Artes Escénicas, con "La Dirección Técnica" como tema de análisis y debate.**

Con un aforo limitado a 90 personas, las Jornadas se desarrollarán los días 14 y 15 de noviembre, en el Palacio de Congresos Europa de la capital alavesa.

Se dirigen a directores técnicos y responsables técnicos de teatros, compañías y empresas de servicios. También a los responsables de producción técnica de espectáculos y personas que, desde otros ámbitos de la gestión, realizan su función en relación a la toma de decisiones técnicas en los campos de las artes escénicas, la creación y explotación de espectáculos y técnicos de las artes escénicas en general.

En la sesión matinal de ponencias del día 14, seguida por un debate, Dominique Guerder (director técnico de artes escénicas y eventos, Francia) y Javier Gorostiola (adjunto a la Dirección Técnica del Teatro Arriaga de Bilbao y miembro de ATAE), hablarán sobre "La dirección técnica: perfil profesional".

Esa tarde, Jason Barnes (director técnico y de producción en el Royal Nacional Theatre de Londres) y Joan Doménech (director técnico del Teatro Nacional de Cataluña) abordarán las "Competencias de la dirección técnica", tema que se debatirá posteriormente.

La mañana del segundo día de las jornadas, el 15 de noviembre, "La dirección técnica y su entorno laboral. Un trabajo solitario" será la cuestión en la que incidirán Javier Gorostiola, Joan Doménech, Dominique Guerder y Jason Barnes, antes de someterse a la consiguiente discusión.

La tarde estará ocupada por un coloquio abierto, centrado en "La dirección técnica en el entorno de la industria del espectáculo en España hoy".

Los miembros de ATAE gozarán de una tarifa reducida de matrícula, establecida en 60 €. El precio incluye la asistencia a las jornadas, visitas culturales y almuerzos de los días 14 y 15 de noviembre.

INFORMAZIOA ETA IDAZKARITZA TEKNIKOA
Gasteizeko Antzokien Udal Sarearen bulegoa
San Prudencio, 34-1. 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 16 12 74
Fax: 945 16 12 54
E-mail: jornadasdeteatro@vitoria-gasteiz.org
Web: www.vitoria-gasteiz.org/jornadasteatro

## Entre Bolo y Bolo ... JUNTA



## Boloen Artean ... BATZARRA

Urriaren 4an ATAEren Zuzendaritzarako Batza bildu zen Iruñan. Iraileko oporren osteko lehen bilera honetan Elkarteak berehala aurre egin beharreko gaiak aztertu eta eztabaidatu egin ziren.

Ataekaria aztertu egin zen, 13. zenbakian egin zitzaion itxuraldaketa eta gero, eta hurrengo ondorioak atera egin ziren. Lehenengoa izan da gure 87. elkartekidea den Koldok maketazioan egin duen lanak aldizkariari itxura dinamikoagoa eta erakargarriagoa eman diola. Arlo horretan orain egiteko dugun lana da, alde batetik, banaketa zabalagoa erreztuko duten publizitatearen bidezko irabaziak lortzea eta, bestetik, aldizkariaren edukina gero eta profesionalagoa bihurtzea.

Erredakzio-taldeak (elkartekide guztien laguntza pozik onartuko duena) badu beste lan-arlo bat garatzeko: arte eszenikoen munduan ezagunak diren pertsonen kolaborazioak lortzea. Hauen artean, esan behar dugu Kepa Ibarra eta José Ibarrola partehartzaile aktibo izango ditugula datozen Ataekarietan.

Diruzainaren azterketa zehatzaren ondoren eta elkartekideen kopuruaren igoera dela-eta, erabaki egin da ATAEren koordinatzailearen lan-ordutegia luzatzea. Nahiz eta elkartekideekiko ordutegia berdin geratu, bulegoko langilearen asteko egun erdiko lanaldi berri honek epe ertainean ATAEren berrabiadura erraztuko duten gai desberdinen kudeaketa ekarriko du.

Azaroan zehar web-orrian aldaketa sakona izango da. Atal berriak antolatzeaz gain, elkartekideentzako soilik izango den gunea sortu egingo da. Bertan, elkartekide bakoitzak izango duen password baten bidez, gure elkartearen partaide direnak bakarrik aztertu ahal izango dituzten lan-eskeintzak izango dituzue ikusgai. Era berean, interesa duten Ataekideek haien curriculum vitae sartu ahal izateko gunea sortuko da web orrian.

Bestalde, lan-taldeak haien zereginetan segitzen dute. EHUk Donostian eta Bilbaon antolatuko dituen Udako Ikastaroetan kolaboratzeko posibilitate batzuk ari gara jorratzen. Kaleko antzerkirako fitxa tekniko standarra amaitu berria da, eta lehen modeloa Artekale Jardunaldietan aurkeztu egin zen. Arte Eszenikoen Goi Eskola sortzeko plataforman sartu egin gara, eta bertan etengabe ekingo diogu teknikarientzako ikasketa arautua lortzeari...

Eta gai hauez guztiez gain, etorkizun hurbilean EEEko Leonardo da Vinci programaren barruan dagoen FIRCTE proiektoa sinatuko dugu, arte eszenikoen teknikarien formakuntzaren kalitatea aztertuko duen dokumentuaren erredakzioan parte hartu dugun aldetik.

Lan handia dugu, gero eta serioagoa, gero eta konprometituagoa. Hori dela-eta, beharrezkoa da Batzordea elkartekide guztien bultzadak lagunduta sentitzea. Guztion lanaren duintasunaren alde ari gara lanean eta horretarako oso baliogarria dugu zuen sostengua. LAGUN GAITZAZU.

### Eskuko eskailerak

Pertsona bakar batek eskailera eramaten duenean **EZ DU** horizontalki egin behar. Aurrekaldea behera begira dagoela eraman behar da.

### Escaleras manuales

Una escalera, llevada por una sola persona, **NO** se debe transportar horizontalmente. Hacerlo con la parte delantera hacia abajo.



El día 4 de octubre se reunió la Junta Directiva de ATAE en Pamplona. En este primer encuentro, finalizadas las vacaciones de septiembre, se estudiaron y debatieron los diversos temas de acción inmediata a los que se enfrenta la Asociación.

Del análisis del primer número de Ataekaria, tras el cambio experimentado en el número 13, se llegó a varias conclusiones. La primera de ellas que el trabajo realizado por Koldo, nuestro socio nº 87, en la maquetación de la revista, le ha dado un aire más dinámico y atractivo. El trabajo en este área se encamina ahora, por una parte, hacia la búsqueda de ingresos publicitarios que permitan una distribución más amplia y, por otro lado, a profesionalizar cada vez más el contenido de la publicación.



La captación de firmas reconocidas en el mundo de las artes escénicas, entre las que ya se cuentan las de Kepa Ibarra o José Ibarrola, que participarán activamente en posteriores números de Atekaria, será otra de las líneas de trabajo a desarrollar por el equipo redactor (abierto a la colaboración de todos los asociados).

El paulatino crecimiento de la Asociación y un detallado estudio del Tesorero, han permitido la ampliación de la jornada laboral de la coordinadora de ATAE. Aunque la atención a los socios se mantendrá en el horario habitual, el aumento del horario de la trabajadora hasta la media jornada semanal permitirá la gestión de diversos temas que redundarán en el relanzamiento de ATAE en un medio plazo.

Durante el mes de noviembre, la página web experimentará un cambio sustancial. Además de la adición de varios apartados, se creará un espacio cerrado para los socios. En él, por medio de un password que se facilitará a cada asociado, se podrá acceder a las ofertas de empleo que sólo podrán consultar nuestros miembros. Igualmente, se habilitará un espacio para que los afiliados que estén interesados en ello puedan incluir su *curriculum vitae*.

Por su parte, los equipos de trabajo continúan con su tarea. Se preparan diversas posibilidades de colaboración con los Cursos de Verano de la UPV en Donostia y Bilbao. Se acaba de perfilar la ficha técnica estándar para teatro de calle, cuyo primer modelo se presentó en las jornadas de Artekale. Hemos sido incluidos en la plataforma que persigue la creación de una Escuela Superior de Artes Escénicas, en la que la enseñanza reglada para técnicos es nuestro empeño irrenunciable...

Y, además de estos temas, en el futuro inmediato se encuentra la firma del proyecto FIRCTE, dentro del programa Leonardo da Vinci, de la CEE, como socios colaboradores en la redacción del documento que analizará la calidad de la formación de los técnicos de las artes escénicas.

El trabajo es múltiple y cada vez más serio y comprometido. Por ello, también es preciso que la Junta se sienta apoyada por la colaboración de los socios. Trabajamos por la dignificación del trabajo de todos y, para ello, cualquier ayuda es valiosa. COLABORA.



# El Rincón de ELÍAS

## GEURE BURUA ERREIBINDIKATZEN

Kostata idatziko dut artikulu hau, buruan pil-pilean daukadalako komentatzeko dudan hainbat kontu, lantzeko dudan hamaikatxo gai. Seguru nago nahas-mahasiko izkribua aterako zaidala.

Haserre bizian eta triste nago abuztuan Txerra, argiztapen teknikari bat, zoritxarreko errepide batean hil egin zitzaigulako, bolo batetik zetorrela edo bolo batera zihoala, batek badaki…Bere moduan beste teknikari asko ibili izaten da furgonetak kargatzen, gidatzen, muntaiak egiten, zuzeneko emanaldia eratzen, desmuntatzen, berriro gidatzen eta deskargatzen, hurrengo egunean berriz ere hasteko, lo egin gabe, atsedenik hartu gabe, …zerik gabe…Ez nuen nik Txerra ezagutu izan, ez zen Ataekidea, baina hori ez da kasurako garrantzitsua: teknikaria baino ez zen. Eraikuntza arloko langilea izan balitz, adibidez, manifestazioak, telebistan eta prentsa idatzian agertutako adierazpenak, grebak… izango ziratekeen. Berarentzat, isiltasuna. Guretzat, ezer ez.

Egunero erreibindikatu egin behar dugu gure burua, ezinbestekoa dugu. Gure ostrazismoaz profitatzen direnei etengabe gogorarazi behar diegu hementxe gaudela teknikariok, ekintza kulturaletarako oinarrizkoa den atala osatzen yugula, eta gu gabe, gure lana egingo ez bagenu, arte eszenikoen inguruan antolatzen diren kongresu ponpoxo horiek bertan behera geratuko zirela. Argi eta garbi.

Azaroaren 22tik 24ra ospatuko da Bilbaoko Euskalduna Jauregian arte eszenikoen nazioarteko foroa den *Escenium II*. Egitarauari erreparatu ezkero, berehala konturatuko gara antolatzaileek ez dutela nahi teknikariok kultura arloko ekimenetan parte hartzaile izatea. Haientzako ez gara esistitzen. Korbatadun hauentzako ahuntzaren gauerdiko eztula ere ez gara. Barre egingo nuke oso mingarria suertatuko ez balitzait. Begira ezazue bestela azaroaren 24an, A3 gelan, arratsaldeko 16,30etan izango den solasaldiaren izenburua: "Arte eszenikoari aplikatutako teknologi berriak", antolatzaileek horrela ulertzen dutena: *"Arte eszenikoetarako sarrerak erosi eta ordaintzeko formula berriak"*, eta *"Publizítate kulturalaren banaketaren planifikazioa eta on-line jarraipena"*. Hau da, DIRUA, DIRUA, DIRUA, haien ustez arte eszenikoak horixe baino ez dira eta.

Gure burua erreibindikatu, bai. Etengabe aritu behar gara gure burua erreibindikatzen. Ezin dugu etsi. Mundu guztiari ulertarazi behar diogu teknika eta teknikariak erabat lotuta daudela kultur ekimenen azken emaitzarekin, eta beraz, formakuntzan eta lan-kalitatean inbertitu ezean, arte eszenikoen arloa erren geratuko da, oinarria faltan izango duelako.

Gure burua erreibindikatzeak suposatzen du honelako proposamenei EZETZ esaten ausartu behar garela: bolo baten ordainaren truke lanaldi amaiezina bete behar izateari, 16 edo 18 lan orduko eguna 150€ren truke, egun batean 4 edo 5 lan-klase ezberdin prezio berberean bete beharrari, ezetz esan behar diogu errepidean bizitza arriskuan ipintzeari, horrela produktoreak gau baterako hoteleko gelaren dirua ordaindu behar ez izateko, edo ekipoa garraiatzeko gidariaren soldata produktoreak aurrezteko, hau dena haiek erosotasun osoz feriaz-feria ibiltzen direla, mahaiaren inguruan egunero gosaldu, bazkaldu eta afaldu egiten dutela, gauero ohean lo egiten dutela eta hurrengoan nola zigortuko gaituzten erabakiko duten kongresu garrantzitsuetara joan egiten direla.

Gure burua erreibindikatzea ere ba da gure buruei gogoraraztea teknikariak eta irabazitako eskubideak ditugun langileak izateaz gain, gure ogibidea estimatzen dugun gizakiak era bagarela, eta gure burua zaindu egin behar dugula.



LANGILEAREN BURUHAUSTEAK
Eginahalak egin arren, ez da inoiz nahikoa izango.
Betetzen ez den lana egindakoa baino inportanteagoa izango da beti.

DILEMA DEL TRABAJADOR
Haga lo que haga nunca será suficiente.
Lo que no haga, siempre será más importante que lo que haga.



# REIVINDICANDONOS

Me va a costar escribir este artículo, porque mi cabeza bulle de tantas y tantas cosas que quisiera comentar, de tantos y tantos temas que quisiera tratar. Conociéndome, seguro que me saldrá un mixto.

Estoy enfurecido, rabioso y triste porque, en Agosto, un técnico de iluminación, **Txerra**, se mató en una carretera maldita volviendo de un bolo, o yendo... O vete tú a saber qué. Él, al igual que muchos otros técnicos que cargan las furgonetas, conducen, montan, hacen el directo, desmontan, conducen y descargan otra vez para volver a empezar al día siguiente, sin dormir, sin descansar, sin... Yo no le conocía, no era socio de Atae, lo que para el caso es lo menos importante; tan sólo era un técnico. Si hubiera sido un obrero de la construcción, por ejemplo, hubiera habido manifestaciones, declaraciones en prensa escrita y en TV, huelgas... **Para él, silencio. Para nosotros, nada.**

Tenemos y debemos reivindicarnos cada día. Hay que recordar continuamente a los que se benefician de nuestro ostracismo que los técnicos estamos aquí, que cumplimos una parte fundamental dentro del acto cultural y que, sin nosotros, esos congresos tan rimbombantes que se montan en torno a las artes escénicas no llegarían a celebrarse. Así de claro.

Del 22 al 24 de Noviembre se celebra *Escenium II* en el Euskalduna Jauregia de Bilbao, foro internacional de las artes escénicas. Si miras el programa, en seguida te das cuenta de que siguen empeñados en que los técnicos no seamos parte implicada en los eventos culturales. No existimos. Para estos señores con corbata no somos ni tan siquiera un grano en el culo. Sería hasta gracioso, si no fuera porque me resulta sangrante, comentaros que el día 24, en la sala A3, a las 16,30h, van a hablar de **“Las nuevas tecnologías aplicadas a las artes escénicas”**, que ellos entienden como *“Nuevas fórmulas de pago en la compra de entradas para artes escénicas”* y *“Planificación y seguimiento on-line de la distribución de la publicidad cultural”*. Es decir, DINERO, DINERO, DINERO, que eso y sólo eso son las artes escénicas para ellos.

**Reivindicarnos, sí.** Tenemos que reivindicarnos continuamente. No podemos cejar ni un instante en el empeño de hacer comprender a todo el mundo que la técnica y los técnicos van tan íntimamente ligados al resultado final de un evento cultural que, sin invertir en nosotros, en formación y en calidad de trabajo, las artes escénicas están y seguirán estando cojas, porque le seguirá faltando una pata al banco.

Reivindicarse es atreverse a decir NO a jornadas interminables por el precio de un bolo, 16 o 18 horas de trabajo por 150€, realizar 4 ó 5 tipos de trabajos diferentes en un día por lo mismo, jugarte la vida en la carretera... para que el productor se ahorre una noche de hotel o el sueldo de un chófer que transporte el equipo, mientras ellos viajan cómodamente de feria en feria, desayunan, comen y cenan a diario sentados a una mesa, duermen todas las noches en una cama y acuden a importantísimos congresos donde decidirán como van a estrujarnos un poquito más la próxima temporada.

Reivindicarse es recordarse que, además de técnicos y de trabajadores con unos derechos adquiridos, somos seres humanos que amamos nuestra profesión y que la caridad, bien entendida, empieza por uno mismo.



# Lan-prebentziorako ate berriak

## Europear Batasunak laguntzarako atari berria zabaldu egin du Interneten

Irailaren erdialdean jarri da martxan Interneteko atari berri bat (http://es.osha.eu.int/index.stm/) Europar Batasunari atxikitutako erakundea den Laneko Segurtasun eta Osasunerako Agentzia Europarraren babespean, eta Bilbaon egoitza nagusia duena.

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO AGENTZIA EUROPARRA
Gran Vía 33
48009 Bilbao
Tel.:944-794-360
Fax:944-794-383
E-mail:information@osha.eu.int
Internet:http://osha.eu.int

Erakunde honek *"Lan giro osasuntsuagao, seguruagoa eta emankorragoa zabalduko dizun sarea"l* lemapean erabiltzaileen eskura jartzen du lan-arriskuen prebentzioari buruzko dagoen informazio guztia. Plataforma digital honetan eskuragarri dugu baita ere on-line liburutegi zerbitzu bat, agentzia europarrak aldiro sorteen dituen argitalpenak aurki ditzakegun gunea.

Web berriak prebentzioaren arloan izan daitezkeen usaera egokien atala ere eskeintzen digu, eta baita lan talde, arlo edo arrisku-moten arabera sailkatutako informazioa eman ere egiten digu, horrela erabiltzailearen bilaketa erraztuz.

Pasa den urriaren 24a eta 28a bitartean eratu zen "Laneko zarataren prebentziorako Aste Europarra" kanpainia bermatzeko asmoz, gai honi buruzko atal berezia ere eskeintzen digu web orriak.

## Agentziaren boletin elektronikoa bi hilabetean behinargitaratzen da, eta posible duzu harpide izatea.

Beraz, gai honetaz edo honekin zerikusia duten beste gaiei buruzko ekimenen berri izateko, Agentziaren azken magazina, "Zarata lantokian" delakoa kontsultatzea besterik ez dago. Bertan aurkituko dituzu bulegoetan, eskoletan edoskontzertu-geletan sortzen den zaratari buruzko artikuluak, eta baita beste kontu hauei buruzkoak ere: akustikaren aldetiko diseinu egokia, elbarritutako langileen behar bereziak, banakako langileriaren babes auditiboa, usaera egokien esku liburua edo lan-arloko zarataren arazoari pausoz-pausoko hurbilketa.

Atari honen atal ugarien artean, honako hauek ere aipatu nahi ditugu: eztabaidarako foroak, gertaerei buruzko informazio eguneratua, kanpainak, prebentzioarekin lotutako ikerketari buruzko txostenak, legedia eta estatistikak.

# Abriendo las puertas a la prevención laboral

## La Unión Europea abre un nuevo portal de asesoramiento en Internet

A mediados de Septiembre se ha puesto en marcha un nuevo portal de Internet (http://es.osha.eu.int/index.stm/) bajo el auspicio de la Agencia Europea para la Seguridad y la Salud en el Trabajo, organismo dependiente de la Unión Europea y que, por cierto, tiene su sede central en Bilbao:

AGENCIA EUROPEA PARA LA SEGURIDAD Y LA SALUD EN EL TRABAJO
Gran Vía 33
48009 Bilbao
Tel.:944-794-360
Fax:944-794-383
E-mail:information@osha.eu.int
Internet:http://osha.eu.int

Bajo el lema “La red que le abrirá un entorno laboral más seguro, saludable y productivo”, pone a disposición de los usuarios toda la información existente en materia de prevención de riesgos laborales. Un servicio de biblioteca en línea, en la que encontramos las publicaciones que elabora periódicamente la agencia europea, también está accesible en esta plataforma digital.

La nueva Web ofrece una sección de buenas prácticas en materia de prevención, proporciona información por tipo de riesgos, sectores o grupos laborales, facilitando la búsqueda al visitante.

Además, con objeto de apoyar la campaña de la “Semana Europea de la prevención del ruido en el trabajo” que se desarrolló entre el 24 y el 28 del pasado mes de octubre, nos ofrece una sección en exclusiva sobre el tema.

### El boletín electrónico de la agencia se publica cada dos meses y es posible suscribirse a él.

Así que ya sabes, si quieres estar al corriente de las iniciativas en materia de control del ruido u otras cuestiones relacionadas con el ruido en el trabajo, echa un vistazo al último número del magazín de la Agencia, «El ruido en el trabajo». En él encontrarás artículos sobre el ruido en oficinas, escuelas o salas de conciertos y otras cuestiones, como el diseño correcto desde el punto de vista acústico, las necesidades especiales de los trabajadores con discapacidades, la protección auditiva del personal individual, un manual de buenas prácticas o un acercamiento gradual al problema del ruido en el trabajo.

Foros de discusión, información actualizada sobre eventos, campañas, informes sobre investigación relacionadas con la prevención, legislación y estadísticas son otras de las numerosas secciones de este portal.

# ATAEK FITXA TEKNIKO ESTANDARRA AURKEZTU EGIN DU
# ATAE PRESENTA LA FICHA TÉCNICA ESTÁNDAR

Aurreko maiatzean hartutako konpromezua horrela betez, Leioako Umore Azoka barruan ospatu ziren kaleko antzerkiaren jardunaldietanATAEk Artekalen aurkeztu zuen kaleko muntaietarako egin zuen fitxa tekniko estandarraren modeloa.

Aurreko maiatzean Leioan ospatu ziren Umore Azoka jardunaldietan mahainguru bat izan zen, Ataekariaren 11.alean azaldu genizuen moduan. Mahaikideak ondoko hauek izan ziren: Moisés San Mateos (ATAE), Raúl Cancelo ( Hortzmuga Teatroaren zuzendari artistikoa) eta Javier Alkorta, Araiako Umore Antzerkiaren Jaialdiaren zuzendaria. Aipatutako mahainguruari amanera emateko, antolatzaileek azaldu egin zuten amaitu berriak diren Artekale Topaketetan zehar kaleko antzerkirako fitxa estandarraren aurkezpena egiteko zuten asmoa, parte hartzaile guztien artean egiteko zen fitxa, hain zuzen ere.

Momento hartan azaleratu egin zen bertan zeudenen artean zeregin eszeniko horretan parte hartzen zuten guztien ezagupenak eta iritziak amankomunean ipintzearen beharra. Azpimarratu egin zen baita elkar ulertzea lortzea benetan ezinbestekoa zela eta riders-ak hartzeko unean oso garrantzitsua zela, beraz, elkar ulertze ezarekin erabat amaitzea.

Sei hilabete beranduago antolatzaileek agindutakoa bete egin zuten eta BADen jardunaldietan parte hartu zuten profesionaleen aurrean aurkeztu egin zuten ATAEk eta Hortzmuga Teatroak elkarlanean egin zuten fitxa teknikoa.

Carlos Javier Gorostiolak, bertan izan zen ATAEren ordezkaria, zera utzi zuen argi: “fitxa estandarra asmatzea ez da baliogarria izango erabili behar dutenen mentalitatea lehenago aldatu egiten ez badugu” Bere ustez, “publikoa eta teknikarien artean programatzailearen figura agertzen zaigu” eta “rider honen garrantzia programatzaileak teknikariari

**Según el compromiso adquirido el pasado mes de mayo en las jornadas de teatro de calle celebradas en Leioa, dentro de la *Umore Azoka,* ATAE presentó en Artekale su modelo de ficha técnica estándar para los montajes de calle.**

El pasado mes de mayo, durante las jornadas de la Umore Azoka celebradas en Leioa, tuvo lugar una mesa redonda de la que dimos noticia en el nº 11 de **Ataekaria**. En ella participaron **Moisés San Mateos** (ATAE), **Raúl Cancelo** (director artístico de Hortzmuga Teatroa) y **Javier Alkorta**, director del Festival de Teatro de Humor de Araia. Como colofón de la mencionada mesa redonda, la organización anunció su intención de presentar, durante la celebración de los encuentros de Artekale, que acaban de concluir, la ficha técnica estándar para teatro de calle que se elaboraría entre todos los participantes.

Ya en aquellos momentos se habló de la necesidad de poner en común las opiniones y conocimientos de todos los implicados en este hecho escénico. Se resaltó lo imperativo de llegar a la comprensión común y la importancia de erradicar la falta de entendimiento al recibir los *riders*.

Seis meses más tarde, la organización cumplió con sus previsiones y presentó a los profesionales del teatro asistentes a las jornadas, encuadradas en el BAD, la ficha técnica que ATAE había elaborado, en colaboración con **Hortzmuga Teatroa**.

**Carlos Javier Gorostiola**, representante de ATAE en este evento, puso de manifiesto la *“inutilidad de realizar una ficha estándar, si primero no cambiamos la mentalidad de quienes van a utilizarla”*. Aseguró que *“entre el público y el técnico existe la figura del programador”* y que *“la importancia de este rider pasa porque el programador consulte con el técnico, porque es éste quien tiene en la cabeza el 95% de las cosas que son precisas para que un montaje llegue a buen*

kontsulta egitean datza, zeren eta teknikaria bait da muntaia ondo ateratzeko behar diren gauzen %95a buruan daukana"

Eztabaida bici eta sakona Portu zen Orduña eta ATAEren ordezkariek argi utzi zuten bertan parte hartzen zuten guztien elkar lanaren beharra eta, era berean, teknikaria kontsideratu egin behar dela ikuskizuna aurrera eramateko ezinbestekoak diren beste agenteak bezain inportantea. Eztabaidaren ostean tailerren lana hasi egin zen.

Fitxa teknikoaren behin-betirako gauzatzea utzi egin zen hurrengo bilera batetarako, ondoko pertsonak osatu egingo dutenak: Carlos Javier Gorostiola (ATAE), Iñaki García (enpresen ordezkaria), Izpiñe Soto (Hortzmuga Teatroaren partaidea) eta Mariam Alonso (programatzaileen aldetik). Aurrerapen modura, hurrengo ondorioak aurkeztu egin ziren:

- Ezinbestekoa da programatzaile, konpainia, teknikari eta banatzaileen arteko harreman estua, bakoitzaren betebeharrak ondo ezagutu eta egoki banatu nahi baldin eta ba dira.
Zeregin kulturaletan inplikatuta dauden guztientzat:
- Oso garrantzitsua eta funtsezkoa da indarrean dagoen legedia ezagutzea, aire zabaleko ekitaldien antolamenduari buruzkoa
- Oso garrantzitsua eta funtsezkoa da indarrean dagoen legedia ezagutzea aire zabaleko ikuskizunen arau teknikoei buruzkoa.
